



## Ertzaintzak boikoteatu du Herri Norte Taldeak Aitor Zabaletari egindako omenaldia

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 17/12/2023

Indar errepresiboek hainbat pertsona identifikatu zituzten eta zenbait lokaletara satu ziren.

Atzo, Herri Norte Taldeak Aitor Zabaletaren omenezko ekitaldi bat antolatu zuen, izan ere, abenduaren 8an 25 urte bete ziren faxistak hau erail zutenetik. Taldearen hitzetan “Aitor mugimendu faxista horren biktima izan zen Realaren jarraitzaile eta euskal abertzalea izateagatik” eta honen erailketa eta “faxismoaren gorakada eta zigorgabetasuna” salatzeke burutu zuten ekitaldia. Hala ere, egitaraua ezin izan zuten aurrera eraman, ertzaintzaren hainbat patruila Kurruliko plaza hartu zutelako, eta bertan zeuden guztiak identifikatu eta denei argazkiak atera zizkieten. Era berean, hainbat lokaletara sartu izan ziren eta hauek miatu zituzten.

(Irudia:ICHH)

---

<https://eh.lahaine.org/ertzaintzak-boikoteatu-du-herri-norte>